



ALEA

arabako aldizkaria

2017-04-07 OSTIRALA
101. ZENBAKIA
URTEAN 55 EURO
WWW.ALEA.EUS



36KO ARRASTOAK, AZALERA

Memoria historikoa berreskuratzeko lanetan

Onintze Salazar

"Ezin da eguraldiaren epe luzeko iragarpenik egin"

Perretxiko bila

Indarrean da Arraiako onddo gunea



2017 Apirila

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA

Sobalditan



Apirilak 3 - 19:00

Jokin Bildarratz

Elkarizketa irekia
* ALEAekin elkarlanean

Filmazpiet



Apirilak 4 - 18:45

Difret

Zeresanay Berhane, 2014. Etiopia
Zinema jatorrizko bertsoan euskarazko azpittuluekin

Irakurraldia



Apirilak 5 - 08:15-12:00 / 15:30-20:00

Irakurraldi irekia

Patxi Zubizarretaren 3 liburu
* Udaberria euskaltegiak antolatuta

Irakurri zure udaberria



Apirilak 6 - 19:00

Story Map

Gasteizko kultura alternatiboa
Inaki Landa
* Gaste Sortzaileak. Bekaren testuinguruan

Emakizkoak saioak



Apirilak 6 - 19:30

EtXÉ

Formatu bakiko kontzertua

Irakurraldi irekia



Apirilak 7 - 21:00

Balfolk - folk dantzialdia

Dantza irakaslea: Patxi Montero

Irakurri zure zikloa



Apirilak 11 - 19:00

Euskadi dokumentala EtXauzia Nafarroaren EtXea

* Loraldio jaialdiarekin elkarlanean

Emakizkoak saioak



Apirilak 20 - 19:30

22M2 (22 metro koadro)

Formatu bakiko kontzertua

Sorku Iraski



Apirilak 23 - 19:00

Ilustrazioek hitz egiten dutenean

Odrizola & Gurrutxaga & Azkarraurizar
* Galtzagorri elkartearekin elkarlanean

Begi Belarri



Apirilak 25 - 18:00

Arrakala

Zirikitu bat hitzean
Proiektzioa & tailerra EMAGIN zentro feministarekin
* GEU elkartearekin elkarlanean

Batzarua



Apirilak 25 - 19:00

Euskararen biziberritzea

Lana
Txerra Rodriguez & J. Inazio Marko
Izena emateko: ueu.eus

Hitz Bilatu Bilatu



Apirilak 26 - 19:00

Hokkienera

Isiako hego-ekialdeko hizkuntza

Sim Tze Wei

oihaneder.eus
HUMANIDADES, LINGÜÍSTICA, EUSKAL BAZTERREAN

Laguntzaileak



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Aste Santuko jai-egunak direla eta, datozen bi asteetan ez da aldizkaririk egongo. Hurrengo zenbakia apirilaren 27an argitaratuko dugu.



Alea 101

Azaleko irudia:
Jaizki Fontaneda
Argazki Press



4



8



23



24

- 4 Memoria historikoa berreskuratzeko egitasmoak.
- 8 Onintze Salazar meteorologoari elkarrizketa.
- 12 Iritzia: Oihan Txabarri eta Blanca Urgell.

ARABAKO KUADRILLAK

- 14 Gasteiz: Santa Barbara plaza eraberrituko dute.
- 16 Aiaraldea: Laudioko alkateari babesa eman diote.
- 17 Gorbeialdea: bisitaldiak antolatu dituzte oporretarako.
- 18 Lautada: euskara eta mendizaletasuna batzeko ekinaldia.
- 19 Añana: Santa Katalinako denboraldi berria aurkeztu dute.
- 20 Mendialdea: indarrean da Arraiako onddo gunea.
- 21 Trebiñu: aisialdiko begiraleen lan poltsa bat osatuko dute.
- 22 A. Errioxa: eskualdeko emakumeen lekukotasunak.

HAMAICA SALTSA

- 23 Laugarren txapela jantzi du Oihane Perek.
- 24 Solasalean, Jokin Bildarratz senataria.
- 27 Emaize: "Bidelagun aparta, arrakasta!".
- 28 Zorion agurrak.
- 29 Postontzia eta denbora-pasak.
- 30 Agenda.



Bultzatzaileak:



Laguntzaileak:



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Udala

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa

Anakozen Amenabar
Mirian Biteri
Estixu Ugarte
Juanma Gallego

Webgunearen ardura

Saioa Fdz. de Aranguiz

Komertziala

Erlantz Andía

Denbora pasak

Bagabiga

Inprenta

Bidasoa inprimatzeko zentroa

Banaketa

Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA

Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.
Eskola kalea, 10, 7. bulegoa,
01001, Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Erredakzioa

erredakzioa@alea.eus

Harpidetzak

harpidetza@alea.eus

Publizitatea

publizitatea@alea.eus
695 63 28 62

Lege Gordailua:

VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

Tirada: 2.100 ale

Asteko kolaboratzaileak: Oihan Txabarri eta Blanca Urgell.

ALEAk ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Memoria itzartzen doa

Lurpeko memoria berreskuratzeko arkeologia lana eta 36ko gerran hildakoak gogoratzeko pausoak eskutik doa; Legutio, Murgia eta Azazetan izan dira ekitaldietako batzuk. **ANAKOZ AMENABAR** LEGUTIO



Gerriko bat agertu zen lehenik, eta haren azpian ziurrenik 1936ko amaiera aldera hil zuten gudari baten gorpuzkinak. Aranzadi zientzia elkarteak prospekzio taldeak aurkitu zuen gerrikoaren belarria Albertia mendiko Txabolapea ingurunean (Legutio) duela hilabete batzuk, metal detektagailu baten bitartez, eta joan den martxoaren 25ean utzi zituzten agerian hezurak. Historiaren atal hori beste 80 urtez ezkutuana gera ez dadin, 2002az geroztik, gerran desagertutako pertsonak bilatzeko lanetan dabil Jaurlaritza, memoria historikoa lantzen duten taldeekin batera; guztira, 86 gorpuzkin atera dituzte lurpetik azken urteetan, horietatik hiru aurtan.

Saihets-hezur batzuk, lepauztai bat eta sorbaldako hezur bat. Horie-

2000

LEHENENGO LANAK

Aranzadi zientzia elkarteak 2000. urtean hasi zen memoria historikoa berreskuratzeko lanetan. Leonen (Espainia) egin zituzten lehendabiziko indusketak, eta geroztik ehunka hobi ireki dituzte Hego Euskal Herrian eta Espainian.

kek topatu dituzte azkenak Txabolapeako bide bazter batean. "Ziurrenik bere momentuan gorpuzta osorik zegoen, baina bidearen albo batean izan da eta hondatzen joan da, nahiko azalean zegoelako lur-

peratuta", azaldu du Lourdes Herrastik, Legutioko hobian lanean izan den Aranzadi elkartearen arduradunak. Hezurrekin batera, larruzko kartutxo zorro ugari ere topatu dituzte, nor izan zitekeen hipotesia osatzeko garrantzitsuak: "Txekiarra da munizioa eta, beraz, pentsa dezakegu Errepublikaren aldeko miliziano bat izan zela; baina, tentuz ibili behar dugu hipotesi horiekin, euren artean munizioa ere lapurtzen zutelako, edo hildakoenak aprobetxatu". Duela hiru urte topatu zituzten mendi magal berean beste gorpuzkin batzuk eta, haren antzera, oraingoa identifikatzea ere "oso zaila" izango dela aitortu du, nahiz eta saiakera egingo duten: "Pertsonaren bat gerturatu zaigu esanez bere senitarteko batzuk justu inguru horretan desagertu zirela, saiakera egingo dugu eta zortea baldin badu-

**Azazetan hildakoak
gogoratzeko ekitaldia egin
zuten larunbatean.**

QUINTAS



gu asmatuko dugu, baina aurretik ezin dugu halakorik pentsatu". Laboregian hezurren DNA eskuratu ostean, eurak izaten dira senitarte-koengana jotzen dutenak, pista baten atzetik. "Kasu honetan ez dugu inolako zantzurik, eta guregana heldu diren pertsonekin alderatuko dugu".

Hobi berriren bat topatzeko aurreikuspenik ez dute, momentuz, Araban. Nafarroan izango dira hurrengo egunetan lanean. "Baina edozein momentutan ager daiteke, hau ezinezkoa da planifikatzea; Legution bertan gehiago egon daitezkeen susmoa daukagu". 1936ko azaroan, Eusko Gudarosteak Gasteiz bereganatzeko erasoaldia egin zuen Bilerleko bataila moduan ezaguna den ekinaldian, eta historialarien arabera mila lagun inguru hil ziren han eta hiru mila baino gehiago zauritu. "Egia da gehienetan batzuk

"Edozein unetan ager daitezke arrastoak; Legution gehiago izan daitezkeen susmoa dugu"

LOURDES HERRASTI
ARANZADIKO KIDEA

eta besteek jaso egiten zituztela hildakoen gorpuk, baina zenbaitzuk erdi ezkutuan geratzen ziren, tapatuta... eta horiek dira, hain zuzen, orain jasotzen ditugunak".

Jaurlaritzak 2020 urtera bitarteko egitasmoa du abian, 1936ko gerran desagertutako lagunak bilatu eta identifikatzeko, eta lan horretan elkarlanean ari da Aranzadi elkarteak. Epe horretan aztertu nahi dituzte hobi guztiak, eta etapa hori bukatutzat eman, baina gero eta

zailagoa dute lana, Herrastik gogoratu moduan: "Gero eta zailagoa da informazioa jasotzea, zekitenak desagertzen ari direlako; izan daiteke kasualitatez topatutako berriren bat, baina gutxi izango dira informazioa haiek ekarriko dutenak".

Memoriaren marka, Murgian

Familia oroimenak lotu eta memoria berreskuratzeko lanetan hamai-ka egitasmo antolatzen ari dira lurraldean zehar, eta ugari izango dira hemendik aurrera ere prestatuko dituztenak. Horien artean bada lehendabiziko marka utzi duenik; Legution hobia aurkeztu bitartean, martxoaren 25ean bertan, Murgian monolitoa inauguratu zuten Aita Pauldarren komentu zaharrean, hiru urte eta erdiz kontzentrazio esparru frankista izan zen tokian. "Hiru bat mila pertsona egon zen



Aranzadi zientzia elkarteko kideek aurkeztu dituzte Albertian topatutako gorpuzkinak. | JAIZKI FONTANEDA

bertan inolako epaiketarik izan gabe. Miseria, esklabutza, torturak, zigorrak... baten batzuek heriotza ere jasan zuten. Zuiako herriak omen egin nahi die pertsona hauei guztiei, gertatutakoa ahaztu ez eta euren askatasun-ametsa egia bihurtuko bada", irakur daiteke Iñigo Arregi artistak sortutako piezan. Zuiako Udaleko alderdi politiko guztietako ordezkariak izan ziren eskulturaren inaugurazioan, Batzar Nagusietako ordezkariak zabal batekin batera.

Ekitaldi horretaz gainera, beste batzuk ere izan zituzten aste berean, Zuiako memoria historikoa berreskuratzeko Yohanna Mendez Rialek idatzitako liburuaren aurkezpena tartean; 36ko gerran eta ondorengo diktadura frankista bizi izan zutenen hainbat lekukotasun bildu ditu *Oroimenaren ibilaldiak* izeneko liburuan. Fernando Iñigo Aristu bildumazaleak osatutako *Post-frankismoa eta trantsizioa pegatinetan (1975-1982)* izeneko erakusketa ere paratu zuten Memoriaren Astea izenekoan.

Murgian egin moduan, Gasteizen ere ikur izan diren guneak zehazten joango dira, bertan onartutako memoria historikoaren egitasmoa betetzen joan ahala. Tokiak seinaleztatzea

aurreikusi dute, besteak beste, Bake kalean 1975era arte kokatuta zegoen kartzela zaharrean edo Santa Isabel hilerriko horman. Horrekin batera, sinbologia frankistan esku hartu nahi dute; hiriko leku ezberdinetan

"Azazetako memoriari bizirik eusten diogu, eta bat egiten dugu haien ideia eta balioekin"

IÑIGO URKULLU
LEHENDAKARIA

ikus daitezkeen frankismo garaiko aztarnak seinaleztatu eta testuinguruan jarrita, adibidez, katedral berriko sarreran ikus daitezkeenak edo Olarizu mendiaren tontorreko gurutzean. Gainera, egitasmoaren egileek eskatu dute hiriaren urrezko domina kentzeko Jose Maria Diaz Mendibil, Francisco Peralta eta Luis Ibarra Landeteri.

Azazetakoak, gogoan

80 urte igaro dira, baita ere, Azazetan hil zituzten 16 lagunei omenezaldia egin arte; horien artean hil

zuten Teodoro Gonzalez de Zarate Gasteizko alkate errepublikanoa. Kartzelatik ateratzeko agiria sinarazi zieten, eta ateratzean, falangista, erreketete eta guardia zibil talde bat zuten zain; Azazetara eraman eta han tiroz hil zituzten. 1978. urtean berreskuratu zituzten gorpuzkin guztiak.

Joan den larunbatz geroztik, han gertatu zena gogoratzeko ikur bat egongo da Azazetako mendatean. Inaugurazio ekitaldian izan zen Iñigo Urkullu lehendakaria, eta nabarmendu zuen preso haiek "elkarbizitzaren, demokraziaren eta askatasunaren balioak" islatzen zizutela. "Haien memoriari bizirik eusten diogu, eta bat egiten dugu haien ideia eta balioekin: elkarbizitza eta giza eskubideak". Besteak beste, Arabako ahalduen nagusi Ramiro Gonzalez, Gasteizko alkate Gorka Urtaran eta Sare Antifaxistako kideak izan ziren ekitaldian.

1937-2017 Oroimenetik Askatasunera izenez igandean Gasteizen egin zuten ekitaldian, ildo beretik, Azazetako hilketak gogoratu eta Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrenaren harira apirilaren 16an izango diren parte hartze-ko deia egin zuten.

Arabako kazetaritza euskalduna babesteko...

jar ezazu zure alea,
jaso ezazu zure alea



Informazio gehiago:
harpidetza@alea.eus
945 71 60 09
www.alea.eus/harpidetzak

ONINTZE SALAZAR

METEOROLOGOA Hodei bat bezala ibiltzen da egunero Onintze Salazar ETBko Eguraldiaren zuzendaria, Kantauri isurialdetik Arabako barnealdera; eguraldia modu didaktikoan azaltzeko dohaina du. **ESTITXU U. LOPEZ DE ARKAUTE VILLANAÑE**

"Atmosfera kaotikoa da; ezin da epe luzeko iragarpena egin"

Euskal Herrian, telebistan, eguraldia aurkeztu duen lehen meteorologoa da Onintze Salazar (Bilbo, 1971). ETBn hasi baino lehen Bartzelonan eta Madrilen "eguraldiaren emakume" bezala lan egin zuen. "Euskal Herrian ez dago ohiturarik, baina Bartzelonan, adibidez, ez zaie bururatu ere egiten meteorologoa ez dena aurkezten azaltzea". Esaten duenari buruz baino, janzkerari edo fisikoari buruzko komentarioak entzuteak nazkatzen du, baina eguraldiaren berri ematea da bere lanaren alde bat, eta atsegin du. Salazarrek azpimarratu du ingurunea ezagutzea oso inportantea dela eguraldiaren iragarpenak egiteko.

Martxoaren 23an ospatu zen Meteorologiaren Munduko Eguna. Hodeiak izan dira protagonistak. Zergatik?

Aurten munduko meteorologia erakundeak aterako du atlas eguneratu bat, eta gauza berri batzuk jasoko ditu, esate baterako, hegazkinak pasatzen direnean sortzen dituzten lorratzei izena jarri diete. Hodeiek informazio asko ematen dute, momentuko informazioa ematen digute, eta kasu askotan zer etor daitekeen ere, fronte baten aurretik iristen diren hodeiak ikusterakoan aurreikusi daiteke zer etorriko den hurrengo orduetan.

Zergatik eguraldi iragarpenak ez dira beti betetzen?

Bi arazo nagusi daude. Bata, normala den bezala, teknologiak ez



Onintze Salazar. | E.U.L.Z DE ARKAUTE

Zientzia emakumea

Bilbon jaio zen baina Gaubean bizi da, aspaldi. Fisikan lizentziatu zen, Meteorologiako espezialitatean, Leioan eta Bartzelonan. Ondoren, ingurumenaren prebentzio eta ingeniariatza masterra egin zuen Kataluniako UPC Unibertsitatean. Euskalmeten eman ditu azken 15 urteak, iragarpen lanak egiten, dibulgazioa eta formazio lanak egiten eta meteorologiaren eta klimatologiaren euskal terminologiaren sortze eta berritze lanetan parte hartu du. ETBko Eguraldia saioa zuzentzen du, eta tarteka aurkeztea ere tokatzen zaio.

duelako lortu iragarpen horiek perfektuak izatea. Alde batetik, jakin behar duzulako momentuko egoera zehazki zein den eta ezinezkoa da jakitea atmosferako puntu guztietan, mundu osoan, zer egoera dagoen. Bigarrenik, erabiltzen diren eredu matematikoak edo meteorologikoak ez direlako perfektuak, ez dira zehatz-mehatz guztiz ezagutzen atmosferan gertatzen diren gauza guztiak; gainera ordenagailu bati ezin diozu eman nahi duzun informazio guztia denbora behar duelako kalkuluak egiteko. Baina funtsezko arazoa da atmosfera berez sistema kaotikoa bat dela, horregatik iragarpen baten fidagarritasuna lehenengo lau egunetara mugatzen da, eta hortik aurrera fidagarritasun maila asko jaisten da.

Gaur esaten baldin badigute uda txarra izango dugula, zer pentsatu behar dugu?

Ez dugu kasurik egin behar. Egun, iragarpen horien fidagarritasuna ez da iristen %50era, beraz kasurik gehienetan okerrak izango dira; oinarri zientifikoa dute baina gehienetan ez dira betetzen. Guk aurreikusten dugunean biharko edo etzitarako eguraldia fidagarritasuna %80 ingurukoa da; ezin dugu esan zehatz-mehatz zein ordutan hasiko den euria egiten, non, eta zenbat botako duen, baina frontea iritsiko dela bai, eta euritara joko duela, eta zer temperatura izango dugun %80-%90ean asmatzen dugu. Urtaroko iragarpenaren fidagarritasuna, aldiz,

**Onintze Salazar,
Villanañeko Angostoko
kanpinean.**

E.U. LOPEZ DE ARKAUTE



%30 eta %40 artekoa da, horregatik Euskalmetek ez ditu egiten.

Nola egiten dituzue iragarpenak?

Egin behar den lehenbiziko gauza da jakin momentu zehatz horretan zer daukagun, horretarako meteosat, satelitea, radarra, estazioak... ditugu. Tenperatura, haizearen indarra, norabidea, hezetasuna... datu horiek bildu egiten ditugu, erradiografia antzeko bat egiten dugu une horretan zer egoera dugun ikusteko, eta gero erabiltzen ditugu eredu meteorologikoak, isobara mapak frontekin, eta prezipitazioen mapak, tenperaturarenak; datuak tratatu behar ditugu. Lan horretan bertakoa izateak garrantzi handia dauka.

Zergatik?

Eredu horiek ematen dizkizutelako datu batzuk baina zuk ezagutu behar duzu zure ingurunea. Demagun ematen dizutela fronte bat etorriko dela baina hego-haizearekin, ondorioz zuk badakizu ipar isurialdean, adibidez Bilbon, euri gutxi egingo duela, eta Araban barnealdean euri gehiago, eta iparretik baldin badator fronte bat alderantziz izango da; hori ereduetan ez da ondo ikusten.

Orduan, mugikorrek ematen dizkiguten eguraldi iragarpenak ez dira uste dugun bezain zehatzak.

Ez badira tokiko zerbitzu meteorologikoaren *app*-ak, modu automatikoa ematen dute iragarpena, hau da, ez dago meteorologo bat, ideia bat egiteko balio du, baina ez dago pertsona bat datuak aztertzen eta



Onintze Salazar
meteorologoa, ETBko
Eguraldiaren zuzendaria

E.U. LOPEZ DE ARKAUTE

ingurunera egokitzen. Elur-mailarekin gertatzen da, makinek batez besteko balio bat ematen dute, baina ingurua ezagututa meteorologoak badaki Agurain inguruan haize mota bat baldin badago, gehiago botako duela edo gutxiago; makina batek ezin du hori aurreikusi.

Zenbat aldiz entzun duzu Euskalmeteko eta Aemeteko iragarpenek ez dutela bat egiten. Egia al da?

Orokorrean bat egiten dute. Gertatzen dena da arazoak sor ditzakeen egoera baten aurrean, adibidez elur-mailarekin askotan gertatzen da, Euskalmetek eta Aemetek ez dituztela zertan eredu berdinak erabili behar, eta ez dituzte erabiltzen. Gehienetan ereduak gauza bera esaten dute, baina batzuetan ez.

Eredu kontserbadoreak edo aurrerakoiak daudelako?

Ez. Ereduak desberdinak direnez, batzuetan bat egiten dute, eta beste batzuetan ez. Eta gero dago bakoitzaren egiteko modua. Esate baterako, Euskalmetek erabiltzen duen elur-maila da elurra zuritzen duen maila, beraz Euskalmetek ematen baldin badu elurra 800 metrora, zu egon zaitezke 500 metrora eta ikusi

elurra botatzen baina ez du zurituko. Normalean Aemetek ematen du elurra botako duen altuera, eta horre-

"Hodeiek informazio asko ematen dute, momentuko informazioa eta etor daitekeenaz ere"

"Gaur esaten baldin badigute uda txarra izango dugula ez dugu kasurik egin behar"

gatik beherago ematen du beti; hori izan daiteke arrazoi bat, eta beste bat da eredu desberdinak erabiltzen ditugula.

Alerta bat emateko orduan presionatuta sentitzen zarete?

Gure lana da aurreikuspen bat egitea, eta gero erabakiak beste batzuek hartzen dituzte. Zer gertatzen da alertekin? Batetik dago iragarpen meteorologikoa eta bestetik dago arazoak egon daitezkeen ala ez neur-

tzea. Adibidez, beste herrialde batzuetan atari batzuk ezartzen dituzte, eta horiek gaintuz gero, abisu horia, laranja, edo gorria ematen dute, baina kontuan hartuz bakarrik atari horiek. Hemen, kontuan hartzen da iragarpen meteorologikoa eta dagoen egoera, atari batzuk daude eta horiek dira oinarria, eta gehienetan betetzen da, baina ez beti. Haizearekin adibidez, demagun ospakizun handi bat dagoela eta jende asko egongo dela kalean, abisua ematen da arriskua egon daitekeelako. Beti kontuan hartzen da iragarpen meteorologikoa, eta zer arrisku egon daitekeen.

Menpekotasuna dugu eguraldiarekiko?

Ez dut uste menpekotasuna dagoenik, gertatzen dena da lehen ez zegoela horrenbeste informazio, eta planak beste era batera egiten zirela, baina aukera baldin baduzu eguraldiaren arabera planak egiteko, are hobeto. **Urtaoren arteko ezberdintasunak itxuragabetzen ari ote dira?**

Datu gehiago behar dira hori gertatzen den jakiteko, baina ikusten ari gara udaberriaren hasiera azken urteetan aurreratzen ari dela, eta luzatzen ari dela.



eta ez dute batere zentzurik, beraz horretan sartu ere ez gara egingo. Ilargiak ez du eragin zuzena eguraldian, ez du inork lortu hori demonstratzerik. Ilargiak eragin handia dauka mareetan, baina grabitazio-indarra dagoelako, eta hori aztertu da, neurtu da eta oso-oso ezaguna da. Ilargiak ura mugitu dezake baina atmosfera desberdina da, eta horretan sor dezakeen eragina oso-oso txikia izango litzateke.

Beharrezkoak dira zientzia gizarteratze-ko ekimenak?

Gutziz beharrezkoak. Zientzia hitza bakarrik erabiltzeagatik jende asko ez da hurbildu ere egiten, eta pertsona batek kultura zientifiko minimo bat izatea oso inportantea da, bizitzan erabakiak hartzeko orduan lagunduko diolako. Zientziak bi alde ditu: egiten diren aurrerapenak eta ikerkuntzak, eta hori komunikatzea. Urte askotan egon da barrera bat, eta jendea oso urruti dago gugandik. Askotan gertatu izan da zientzialari bati bere ikerkuntza kontatzeko eskatu eta ez dakiela ondo kontatzen; jaitsi behar zara zure mundutik eta saiatu behar zara ulertarazten informazio hori.

Gizonezkoen mundua da meteorologia?

Zientzia arlo gehienetan bezala gizonen mundu bat da egun meteorologia. Hemen emakume gehiago gaude meteorologian, izan ere gehienak emakumeak gara, eta ETBn gauden meteorologoak hiru neska gara; egon bagaude, ikerketak egiten ditugu

"Meteorologian emakume gehiago gaude ikertzen, lanean, baina kostatzen da ardura postuetara iristea"

eta lanean hasten gara, baina goiko ardura postuetara iristea gehiago kostatzen da. Erresistentziak daude, baina meteorologia zientzia gaztea da eta Euskalmeteko edo ETBko lantaldea gaztea da ere, eta uste dut egunen batean apurtuko dela kristalezko sabai hori. Inportantea da meteorologian emakumezkoak izatea gehienak; irratietan eta telebistan entzuten eta ikusten gaituzte, eta erreferenteak sortzen dira neska gazteentzat.

"Gaubeak lasaitasuna ematen dit"

Hotza ala beroa?

Beroa.

Zer da zuretzat ekaitz perfektua?

Etxean barruan bero-bero zaudenean eta ikusten dituzunean zeruan hodei potolo zoragarri horiek eta jarraian trumoiak entzuten dituzunean.

Kexa asko jasotzen dituzu ingurukoen partetik?

Ez. Galdera asko bai eta esker onak.

Zure bizitzako unerik eguzki-tsuen?

Nire umea jaio zenean.

Zergatik aukeratu duzu Gaubea?

Paisaia aldetik asko gustatzen zait, ematen didalako lasaitasuna, eta aldi berean mendira joateko aukera, eguzki ordu gehiago daude; jaio nintzenetik uda garaian hona etorri naizenez, haurtzaroko oroitzapen pilo bat ditut.

Emakume batek telebistan eguraldia aurkezten duenean beti dago norbait bere fisikoari edo jantzeko moduari erreparatzen diona.

Balio duena da aurkezten duen pertsonak dakiena, eta nola kontatzen duen, horrek izan behar du garrantzia. Aurkezle gizon bati ez diote inoiz esango "a zer gorbata jarri dizuten gaur!", eta nesken kasuan beti, niri gertatzen zait, askotan gertatzen da, politikan gertatzen den moduan. Gustatuko litzaidake aurkezten azaltzen den pertsona hori ez izatea polita delako, baizik eta badakielako kontatzen kontatu behar duena; janzkera izango da ahalik eta neurtuena, ondo jantzita joatea, baino gehiago ez, modelito horiekin... Nik neuk neska horietako batzuk ikusten ditudanean telebistan bakarrik pentsa dezaket nola mugitzen diren eta nola doazen jantzita, eta interesatzen zait zer esaten ari diren, baina ezin dut, ez dut lortzen, maniki batzuk direlako.

Aldaketa klimatikoak zerikusirik al du?

Suposatzen da baietz. Gertatzen dena da aldaketa klimatikoarekin ondorio sendoak lortzeko urte askotako datuak behar direla, eta Euskalmet gaztea da hori egiteko. Pentsa, datorren astean ziklogenesi leherkor bat datorrela, momentuz ez ditugu tresnak erlazionatzeko ziklogenesi hori aldaketa klimatikoarekin. Hori lortu ahal izateko, denbora gehiago behar da. Aldaketa klimatikoa oso apurka ematen da, eta modu orokorrean aztertu behar da.

Muturreko gertaerak jazoko ditugu Euskal Herrian?

Dauden ikerketen arabera, muturreko gertaeren maiztasuna handituko da aldaketa klimatikoaren ondorioz. Euskal Herria toki txikia da, eta gainera zorzea daukagu itsaso dugulako. Udak gero eta beroagoak dira, baina kostaldean itsasoak asko freskatzen du, eta aldaketa hauek ez ditugu horrenbeste nabarrituko.

Ilargia, tenporak, esaerak, eguraldiarekin ditugun esperientziak... zientziaren laguntzaileak edo aurkariak dira?

Bi gauza ezberdin daude. Tenporek ez dute inongo oinarri zientifikorik

OIHAN TXABARRI

PUBLIZITATEAN LIZENTZIATUA



Bada zerbait

Haurrek ez dakite soziolinguistika zer den, baina asko dakite soziolinguistikaz. Eskolaz kanpoko ingelesa irakasten nabil, eta hizkuntzenganako jarreraz zer edo zer ikasi dut denbora gutxian. Bakanka izango dituzte hitz ederrak euskararentzat auzoko haurrek, eta jakingo balute nola egin didan *karak* bihotzak *I like English but I don't like Basque* entzun dudanetan, barkamena eskatuko lidakete. Baina ez dakite, noski.

Soziolinguistikaz bai, badakite. Har dezagun

"Garaipena izan arren, Maroto bota zuten indarren ahulezia islatu da"

lagun gasteiztar batek azaldutako adibidea: amarekin polonieraz, aitarekin euskaraz, hiriarekin gaztelaniaz; beraz jaiotzetik hirueledun. Gurasoak elkarrekin erdaraz moldatzen zirela jabetu arte,

orduak akabo: hark gurasoekin ere erdaraz. Zertarako hiru kode bakarrarekin nahikoa denean? Haur euskaldunak erraz dira egiten, haur euskaltzaleak nekez. Eta haur gasteiztar askorentzat eskolara mugatutako tresna besterik ez da euskara. Halaxe galdetu zidan iaz ikasle batek: "Zergatik egin duzu euskaraz telefonoz?". Arrotza zitzaion euskara interakzio pribatuentzako erabiltzea. Ez zekien eskolaz kanpo inork euskaraz egiten zuenik.

Latza da haur horiek euskarara biltzea, eta batzuetan bidean ogi-apurtxoak jartzea besterik ez zaigu geratzen. Baina joan den astean Korrikako abestia kantatzen sartu zait klasean ikasle bat baino gehiago, hala moduzko ingelesez *are you going to the Korrika?* galdezka. Eta nik *yes, of course*, barrutik pentsatzen bueno, *it's something*, bada zerbait.

BLANCA URGELL

FILOLOGOA



Tortaka

1562an, *Korrika* ibili beharrean *Tortaka* ibiliko ziren gasteiztarrek. Hala esaten zuen behintzat Landucciren hiztegiko berriemai-le nagusia zenak, "A eskua" izen lehorrarekin ezagun dugun gizaki ezezagun hark.

Gogoetan nabil batzuetan nolakoa zatekeen hura. Gizona zatekeen (dudarik ez), emazteki gutxi baitzekiketen orduan idazten, eta jakitekotan ere inor gutxi pentsatuko baitzukeen hiztegi bat osatzeko gai zirela. Maila batekoa zatekeen (dudarik ez honetan ere), oro har gutxi baitzeki-

ten orduan idazten baita gizakumeen artean ere, gutxiagori bururatu baitzitzaion *ts* eta *tz* hotsak grafikoki bereiztea *s* eta *z*-tik. Gure Lazarragari ez, behintzat, baina A

"Bi urtetan behin korrika egiten dugu, karra, laster, arineketan..."

eskuari bai. Letra-gizona zatekeen, beraz, ikasia, diruduna apika, edo langile porrokatua bederen, hamaika ordu gaztelaniazko hitzak euskaraz nola esan burua hausten egoteko lain.

Dena dela, halako kargudun edo zaldun bat bazen, *Torta* egitekotan zaldi gainean ibiliko zen, *ez jogger*, *ez runner*, *ez marathoner*, baizik eta *horseman* zatekeen, zaldi gainean tente eta harro.

Guk, XXI. mendeko gasteiztarrok, ezin dugu berak egin zuen balentria hura egin, alegia, Arabako euskal hitzez osatu hiztegi bat gerokoek gogora dezaten. Bi urtetan behin korrika egiten dugu, karra, laster, arineketan, eia, lasterka edo tortaka, batzuetan baita trinkin alfer traketsok ere, zertarako eta hemendik gizaldi batzuetara berriro ere norbaitek jakin-minez Araba osoko euskal hitzak biltzen lehiatu dadin. Hala biz.



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1 • 01012 VITORIA-GASTEIZ

SAREAN

#Abtx17

Laugarren txapela jantzi du Oihane Pereak, buruz burukoan Asier Otamendi gailenduta; giro ezin hobean, 600 bat bertsozale elkartu ziren Arabako Bertsolari Txapelketako finalean, Principal antzokian. **A. AMENABAR** @anamenabar



Ane Zuazubiskar @AneZuazubiskar

Hunkituta, ospitalean duen amari eskaini dio txapela Oihane Perea Arabako txapeldun berriak. #abtx17



Elena Lpz de Lacalle @elenalopezdela4

Giro ederra Arabako Bertsolari Txapelketan. Zorionak Oihane!



Maider Iantzi @gara_miantzi

Saioa hagitz polita doa. Umoretsu, hunkigarri... Seiko motzeko ariketan primeran seiak #abtx17



Zigor Etxeburua @Zetxeburua

Oihane Pereak bertso finalean, Korrikaren puntuan, euskara ofiziala Nafarroa osoan eta #EuskaraDenontzatDoan aipatu ditu. Zorionak!



Maialen Sobrino @Maia_lehen

Asier Otamendi eta Oihane Perea ari dira buruz-burukoan, harreman estu baino estuagoan dabilta gaur! Epeletik berora antzokian #Abtx17



Iñaki Larrañaga @InakiLarra

Zorionak Oihane Perea. Arabako Txapelduna! Bejondeiola! Laugarrena du! #abtx17

15 Artium



15. urteurrena. Erakusketa-aretoak berriz zabaltea

Apirilaren 7an

LILIANA PORTER

Elkarrizketak eta desobeditzeak

Apirilaren 12an

JUAN PÉREZ AGIRREGOIKOA

Uztailak hogeita hemezortzi - Urriak hogeita hamazazpi

Apirilaren 21ean

Liburua, kulturaren lekuko. Liburu erakusketa

Apirilaren 26an

Artea eta (artearen) Sistema Artium Bilduman

Urteurrenaren eta berriz zabaltearen programa osoa: www.artium.org



Goiko irudian, lanak egin ostean, plazak izango duen irudi berria. | GASTEIZKO UDALA

Santa Barbara plaza goitik behera berrituko du Udalak

Irailan ekingo diote ingurunea konpontzeari; 9,6 milioiko inbertsioa eta 15 hilabeteko epea izango du egitasmoak

MIRIAN BITERI

GASTEIZ

Badabil forma hartzen agintaldi honetarako plan estrategikoaren barruko inbertsio garrantzitsuenetakoa: Santa Barbara plaza eta ingurunearen eraberritzea.

Pasa den ostiralean onartu zuen Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak gunea berritzeko lanak kontratatzeko

txostena; 9,659 milioiko aurrekontua du, eta obrak egiteko epea 15 hilabetekoa izango da.

Santa Barbara plazaren espazioa "duintzea" eta, bide batez, "hiriarentzat" berreskuratzea. Horixe da Gorka Urtaranen gobernuaren helburu nagusia. "Gaur egun labirinto itxura du, espazio ugari eta oso zatikatuak baititu, parterreak direla eta.

Horretaz gain, ingurune-tik isolatuta dago eta irisgarritasun zailekoa da", azpimarratu du alkateak.

Hori dela eta, proiektu berrian aldaketa asko egi-

tea aurreikusten dute. Besteak beste, Posta kalea oinezkoentzat bihurtuko da Santa Barbaratik igarotzen den zatian, Urriaren Hamabia kalearen espaloia zabalduko da eta parterre edo gaur egungo lorategi gehienak kenduko dira.

Posta kalea oinezkoentzat izango da plazatik igarotzen den zatian

Hiru berdegune

Enparantza berriak hiru berdegune izango ditu. Mendebaldean, El Corte

Inglesetik hurbilen dagoen aldean, landare mediterraneoek zerrendak landatuko dira, eta eserleku luze bat jarriko da, ur-zurrustekin. Atsedean hartzeko gunea izango da. Ekialdean ere

Pergola handia instalatuko dute; 48 saltokientzako tokia izango du

Aparkalekua osorik eraberrituko dute; hiru milioi bideratuko dituzte

eserleku luzea duen beste berdegune bat egokituko da, eta haurrentzako jolasak jarriko dira. Hirugarren lorategia Azoka plazaren ondoan kokatuko da.

Bestalde, Posta kaleko aldean pergola handi bat instalatuko dute, 10 metro zabal eta 80 luze izango duena. Azpiegitura horrek 48 saltokientzako lekua izango du. Horrez gain, Azoka plazaren aldean, eskailerez eta arrapalaz osatutako irteera berria eraikiko dute, eta horrek mahaia jartzeko aukera emango die gastrotabernei.

Aparkalekuari dago-kionez, osorik eraberritze-ko asmoa du Udalak; horretarako aurrekontua hiru milioi ingurukoa da. Horrez gain, saneamendu eta hornikuntza sareak ere berri-tuko dituzte, eta inguru-neko argiztapena hobetu.

El Corte Ingles

Txostenak El Corte Ingles-eko zamalanak lurperatzea ere aurreikusten du; eta hain justu ere, lan horiek piztu dute eztabaida Udaleko alderdi politikoen



Besteak beste, parterreak kenduko dituzte. | M.B.

artean. Urtearen gobernuak dio egingarria bada egitasmoan sartu egingo dela obra hori, Jaurlaritzaren aurrekontuari gehituko 800.000 euroko partidaren bidez. Gaineratu du proiektua idatziko dela orain eta aurrera ateraz gero, saltokiaren inplikazioa beharko dela.

EH Bilduk txosten juridikoa eskatu dio udalbatzako idazkari orokorrari, zamalanetako kaia zabaltearen inguruaren dauden zalantzak argi ditzan.

Antxon Belakortu zinegotziak honakoa salatu du: "PPk eta EAJk akordio bat erdietsi dute 800.000 euro inbertitzeko. Operazio honek zentro komertzialari fabore bat egitea suposatzen du".

Udala El Corte Ingles-en "mesedetan" ezin dela ibili adierazi du eta zera azpimarratu du: "Kaiak zarata eta eragozpenak eragiten dizkie auzokideei eta zentro komertzialak berak obraren kostua bere gain hartu beharko du".



Kalearen ezkerreko aldeko aparkalekuak bateriakoak izango dira aurrerantzean; 60 leku berri dira. | A. AMENABAR

ALDAKETAK ADRIANO VI KALEAN

Adriano VI kaleak 60 aparkaleku gehiago ditu, Trafiko Zerbitzuak lekuak berrantolatu ostean. Zehazki, Gustavo Maeztu Margolariaren eta Tomas Alfaro Margolariaren kaleen arteko zatian, zirkulaziorako errei bat kendu dute, eta,

kalearen ezkerreko aldeko lerroko aparkalekuak bateriakoak bihurtu dituzte. Azken urteotan, asko izan da San Martin inguruan kendu egin den aparkaleku kopurua; falta hori arintzen saiatu dira neurri horrekin.



Astelehenean herritarrek egindako agerraldiaren irudia. | AIARALDEA.EUS

Herritar talde batek babesa eman dio Urkixori, isun mehatxuaren aurrean

Laudioko alkatea 27.500 euroko isunarekin zigortu nahi dute ikurren legea ez betetzeagatik

AIARALDEA

LAUDIO

Espainiako Gobernuak Ordezkaritzak eskaera egin du epaitegian Laudioko alkate Natxo Urkixo ikurren legeari lotutako 2015eko epaia ez betetzeagatik; 27.500 euroko isunarekin zigortu nahi du

Javier de Andresek zuzentzen duen erakundeak, hileko 1.500 euro. Epaitegiak erabaki beharko du orain Laudioko udaletxean epaia bete den. Izan ere, Espainiako ikurrarekin batera, hainbat ikur jarri zuten; tartean, Saharakoa eta Eskoziakoa.

De Andresen eskaerak izan du dagoeneko erantzuna. Urkixori babesa eman nahian, astelehenean, esaterako, agerraldia eskaini zuen herritar talde batek. Besteak beste, salatu zuten ez dela mota horretako lehenbiziko kasua izan: "Azken urte-

tan Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak eraso ugari abiatu du udal honen aurka, Laudioko herritarren borondate demokratikoa urratuz".

Bozeramaile batzordea

Laudioko Bozeramaile Batzordea ere alkatearen alde agertu zen pasa den astean. EH Bilduk eta EAJk adostutako testuak salatu du Espainiako Gobernuak Ordezkaritzaren salaketak "ez duela oinarririk" eta alegazioak egin dituztela; oraingoz, baina, ez da ebazpenik jaso. Koalizioaren eta jeltzaleen ustez, Udalak epaia bete du.

Gauzak horrela, nabarmendu dute isuna jartzeko saiakerak ez duela legearekin zerikusirik, eta "bultzada politikoaren ondorio" dela. Alkateari babesa adierazi diote eta azpimarratu dute "ankerkeriaz" jokatzeko ari direla bere aurka.

Testuaren bozketan, Omnia abstenitu zen eta PSE-EE-k eta PP-k aurkako bozkatu zuten. Ohar baten bidez Omnia azaldu du abiapuntua alkatea babestea zela, baina, EH Bilduk eta EAJk nahiago izan dutela "kutsu politikoa duen testua" onartzea.

AIARALDEAGAU



Garagardoa egiten ikasi daiteke egunotan Oiardon

Gaztandegi bateko lanak ere gertutik jarraitu daitezke Kuadrillak antolatutako bisitei esker

MIRIAN BITERI

OIARDO

Bertan da Aste Santua; astebete eskas baino ez da geratzen eta gehienek oporrek amets egiten badute ere, badaude oraindik ere jaiegunetarako planik ez dutenak. Gorbeialdeko Kuadrillak prestatutako bisita gidatuetan parte hartzea izan daiteke aukeretakoa bat.

Ostegun Santuan, apirilaren 13an, Oletako Atxeta gaztandegia ezagutzeko aukera izango da. Maider Unda kirolari ohiak eta artzainak artalde erakutsiko die bisitariei, eta gazta egiteko prozesua. Ez da dastatzerik faltako.

Hilaren 15ean, larunbatean, Baias garagardotegian izango da hitzordua. Gorbeia mendiguneko Baias errekatik hartutako urarekin artisau-lanaren bidez eginda dagoen garagardoari buruzko xehetasun guztiak jasoko dituzte Joselu Lopez eta Idoia Marañonen eskutik. Instalazioak ezagutu eta egiten diren garagardo mota



Hainbat garagardo mota egiten dituzte Urbakustaizen. | BAIAS

ezberdinak dastatuko dituzte bertan.

Aramaioko Aldeko ezta

Pazko-bigarrenean, apirilaren 16an, Aramaioko Uribarri auzora joko du egitarauak. Juan Mari Arriolabengoak erlezain baten lana erakutsiko die bisitara hurbiltzen direnei. Erlauntzak gertutik ikusi osten, Aldeko eztiaren erauzketa tailerrea jarraituko dute azalpenek. Gainerako bisitetan bezala, produktua bera ere probatuko ahalko dute.

Gorbeialdeko Kuadrillatik ohartarazi dute mugatua dela plaza kopurua eta, hortaz, aldeztatik izena eman behar dela 945-43 04 40 telefono zenbakian edo turismo@gorbeialdea.eus helbide elektronikoan.

Lehen bi irteeretako sarrerak 8 euroan salduko dira; Atxeta gaztandegian doan sartuko dira 8 urte arteko neska-mutikoak. Aldeko eztiaren bisitagatik, berriz, 6 euro ordaindu beharko dituzte sei urtetik gorakoek.

Gorbeialdea bisitatuko du ostera ere Korrikak

M.B.

ZIGOITIA

Zain daude berriro ere Gorbeialdean Korrika noiz iritsiko. Ostiral goizaldean egingo du bigarren sartu-irtena; Ubide atzean utzita sartuko da Arabara, 04:08an. Ordu bete beranduago helduko da Gopegira; 05:47an, Murgiera; eta, 06:42an, Izarrara.

Lasterketaren inguruan, hainbat ekimen egingo dira ostiralean. Murgian, esaterako, Korrika Txikia dute 11:30ean, Oro Ama Birjina eskolakoek; 15:00etan, Urkabustaizko etxeko txikiaren txanda da. Aramaion, trikiti jaialdia dute egun berean; eta Izarran, *Futbolariak eta printzesak* antzezlan, 19:30ean. Ikuskizun berdina ikusi ahalko dute larunbat arratsaldean, Zigoitian.

Lasterketak bitartean bere ibilbidea egiten jarraituko du; larunbatean itzuliko da bertara, Debagoiena igaro ostean. 14:59an sartuko da Landara.



Hala Bedi tabernako nobedadeak

Astelehenetik ostiralera
Eguneko platera + edaria

6€

Krepe karta berria!!

Kutxi 101

Telf: 945 26 04 11

Mendia eta hizkuntza eskutik doaz 'Oxigenoa Euskarari' ekimenean

Hilabeteon hasi da eskolatik kanpo gazteen artean euskara eta mendizaletasuna sustatu nahi dituen programa



Gazteek, besteak beste, eskalada, orientazioa, eta segurtasuna landuko dituzte. | LAUTADAKO EUSKARA ZERBITZUA

JUANMA GALLEGO

AGURAIN

2010ean abiatu zen, aurrenekoz, *Oxigenoa Euskarari* egitasmoa, Laudioko Udalaren eta Mendiak eta herriak mendi gidarien elkartearen arteko elkarlanaren ondorioz.

Ordudanik, ekimena Lautadara ere zabaldu dute, eskolatik kanpo gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko asmoarekin. Aurtengo edizioa abian da. "Laudioren dagokionez, ikasturte osoan zehar, hamar txango egiten ditugu, irailetik ekainera. Lautada eta Barrundiako ekimenei dagokienez, sei txango antolatzen dira", azaldu du mendi gidari lanetan ari den Julen Reketak. Barrundiako ekimena 8-12 urte arteko gaztetxoekin zuzenduta dago, eta Lautadako, berriz, 12-18 arteko gazteei.

Mendia ezagutzeaz gain, bestelako jarduerak

"Mendiaz gain, gazteekin Historia eta etnografia lantzen ditugu"

JULEN REKETA
MENDI GIDARIA

ere lantzen dituzte txangoetan. "Beti saiatzen gara kutsu historiko edo etnografikoa duten lekuetara hurbiltzen. Era horretan, mendi irteera bakoitza aberasten ahalegintzen gara, eduki erakargarriak lantzeko aukera emanez".

Barrundiako gaztetxoekin, adibidez, Leintz Gatzagako museoan egon direla aipatu du mendi gidariak. "Laudiokoekin, berriz, Gipuzkoako burdinolekura joan gara".

Orientazioa eta eskalada

Baina mendiak berak ere badu, protagonismoa. "Nola ez du izango ba, gu mendiko gidariak

izanda!", dio Reketak. "Esaterako, mendian ondo orientatzen irakasten diegu parte hartzen duten gazteei".

Garaiko urtegiaren inguruan, berariaz orientazioa lantzeko ibilbide bat prestatuta dago, eta hori baliatuko dute aurtengoz ere.

Horrez gain, eskalada ikastaroa egingo dute, eta mendian segurtasunez ibiltzeko nondik norakoak azalduko dituzte. "Lautadako gazteekin, Eginora joan ohi gara eskalada lantzerako, Lezera; Laudiokoekin, berriz, Iruñean dagoen Rokopolisera joan gara".

Gazteek natura ezagutzeko parada izango dute. "Mendian topatzen diren animalien eta landareen inguruko azalpenak ere ematen ditugu".

Gazteekin izandako esperientzia "primerakoa" izan dela azpimarratu du Reketak. "Asteburua tarte

Aurtengo irteerak

LAUTADA

Apirilaren 2an:
Kurtzebarri.

Maiatzaren 7an:
Orizol. "Orientazioa mendian".

Irailaren 17an: Ernio.
"Euskal mitologia".

Urriaren 28-29an:
Eginoko aterpetxea.

Azaroaren 19an:
Toloño. "Elikadura mendian".

Abenduaren 17an:
Arantz. "Mendia neguan. Segurtasuna".

BARRUNDIA

Apirilaren 23an:
Etxebarri Urtupiñatik abiatuz, mendi irteera.

Maiatzaren 21ean:
"BTT Barrundia".
Mendiko bizikleta.

Irailaren 10ean:
Orientazioa Garaion.

Urriaren 7-8an:
Leixargarateko txabola.

Azaroaren 5ean:
Aldaia.

Abenduaren 3an:
Ozetabaso.

laburra da, eta askotan zaila da dena bateratzea, baina gazteek oso ondo pasatzen dute, eta esperientzia oso polita da".

Ekimen honetan lagun dezente biltzen direla azpimarratu du mendi gidariak. Laudioko taldean, batez beste, 30-25 gaztek parte hartzen dute, eta, Lautadako eta Barrundiako taldeetan, berriz, hogei bat lagun bakoitzeko.

Martxan dira Santa Katalina lorategiko bisitaldiak eta tailerrak

Lorategi botanikoaren denboraldi berria aurkeztu dute; askotariko jarduerak izango dira apiriletik urrira bitartean



Ikasleentzako egutegia prestatzen dabilta Santa Katalinako lorategi botanikoan. | PHOT.OX

MIRIAN BITERI

IRUÑA OKA

Zabalik daude osterara ere Santa Katalinako lorategi botanikoko atea, eta turismoa sustatu nahian, jarduera programa erakargarria prestatu du Arabako Diputazioak; besteak beste, bisita gidatua, tailer didaktikoa eta kultura ekitaldiak izango dira datozen hilabeteotan bertan.

Berrikuntzen artean, tximeletegiarekin lotutako ekimenak dira nabarmentzekoak. Uztailean, esaterako, tximeleten gaineko hitzaldia eskainiko du aditu batek gune horretan, eta baita animalia horiek behatzeko saioa ere. Gainera, ikasleen bisi-

tak antolatzeko egutegia prestatzen dabilta datorren ikasterterako, umeez tokian bertan ikas dezaten espezie horren metamorfosi eta bizitzari buruz jakin beharrekoak.

Tailer didaktikoak ere antolatuko dituzte, gainera, lorategiko denboraldi berriari begira; hain justu, sendabelarren eta toki-ko landareen gainekoak izango dira, eta lurrin eta xaboiak artisau erara egiten ere ikasteko aukera izango dute.

Izarrak behatzeko saioak
Izarrak eta konstelazioak behatzeko saioak ere leku berezia izango du. Azpimarratzekoa da Santa Katalinako lorategia *Star-*

light izar parke moduan onartua izan dela, eta ekitaldi nagusi gisa, ilargi festa egingo dute abuztuaren 10ean. Dagoeneko errotuta dagoen festa da hori, urtero milaka lagunek parte hartzen dute baitute antzerkiz lagundutako ibilaldian.

Flamenko eta tango gauak
Horrez gain, askotariko kultura ekitaldiak izango dira datozen hilabeteotan; tartean, flamenko eta tango gauak egingo dituzte, eta Erdi Aroan oinarritutako *Enperadorearen bidaia* antzezlan eskainiko dute. Gauean pelikula eskainiko dute.

Apirila eta urria bitartean egingo dira aipatu-

Santa Katalinako ordutegia

Bakoitzak bere kabuz edo bisita gidatua eginetik ikusi daiteke lorategi botanikoa, honako ordutegian:
10:00etatik
14:00etara,
astegunetan; eta
11:00etatik
15:00etara,
larunbatetan,
igandetan eta
jaiegunetan.
Maiatzetik irailera bitartean, berriz,
10:00etatik
20:00etara egongo da zabalik.

tako ekintza guztiak, Arabako Foru Aldundiaren Turismo Sustapenaren sailak eta Lorategi Botanikoaren Adiskideak Elkarteak elkarlanean sinatutako hitzarmenari jarraituz. Hiru ardatz nagusi ditu honako akordioak: tximeletategi berria eta tximeleta lorategia sustatzea, jarduera botanikoa bultzatzea eta lorategia turismo baliabide bezala indartuko duten askotariko jarduerak antolatzea.

Iazko urtean zehar 12.000 lagun baino gehiagok bisitatu zuten Santa Katalina lorategia eta kopuru horrek bisitarien zenbatekoan %25eko hazkunde eragin zuen.



Perretxiko bilketa mugatzea bilatzen dute araudi berriarekin. | ALEA

Apirilaren 1etik indarrean da Arraiako onddo gunea

Isunak jartzen hasi aurretik, informazio eta sentsibilizazio kanpaina jarriko dute martxan

MIRIAN BITERI

MAEZTU

Denbora hartu dute Arraia-Maeztuko administrazio batzarrek onddo gunea sortzeko baina dagoeneko martxan dago. Pasa den larunbatetik, apirilaren 1etik, dago araudi berria indarrean. Hor-taz, Mendialdeko udalerrri honetara perretxiko bila doanak jakin dezala mugatuta dagoela jarduera hori.

Hainbat tarifa ditu gune "sozial" honek: urteko abonuari dagokionez, udalerrian erroldatuta daudenek bost euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, berriz, 80 euro. Bestalde, eguneko txartela bost euroan dago salgai, eta astekoa, berriz, hogeituroan. Arraia-Maeztuko udaletxean, Korresko parketxean zein inguruko lau jatetxetan eskuratu daitezke horiek.

Arraia-Maeztu Udala administrazio batzarren proposamena kudeatzeaz arduratu da. Udaleko alka-

Salmenta tokiak

Izki jatetxea:

945-41 03 88

Los Roturos jatetxea:

945-41 02 50

Virgala jatetxea:

945-41 01 53

Obenkun jatetxea:

945-40 61 23

Korreseko parketxea:

945-41 05 02

Arraia-Maeztuko

udaletxea:

945-41 00 33

te Anartz Gorrotxategik azaldu du bi urte eta erdi eman dutela araudia pres-tatzen, eta helburu nagusia dela perretxiko bilketa mugatzea. Horrekin lotuta, zera azpimarratu du: "Mendia oso zabala denez ez du ematen jendea perretxiko bila hurbiltzen denean naturari kalte egiten dionik; baina, errea-

litatea bestelakoa da". Gaineratu du, orokorrean, banaka edo joaten diren zaleek "praktika onak" dituztela eta talde handiak direla mendiari "kalte" egiten diotenak.

Dirua natura babesteko

Kuotekin jasotako dirua inguruak babestera bide-ratuko dela ere iragarri du Gorrotxategik. Besteak beste, basoak itxi edo jardunaldi mikologikoak antolatu dira horrekin, eta udaberrian eta udazkenean zaindari bat jartzearen aukera ere aztertzen ari direla jakinarazi du. Aldi berean, ibilgailuak herrigunetan zein Izkiko parkean sakabanatuta dauden gunetan utzi behar direla ohartarazi du alka-teak, horrela dago eta jasota araudi berrian.

Gorrotxategik aipatu du hasiera batean ez dute-la zigorrik jarriko: "Informazio eta sentsibilizazio kanpaina egingo dugu lehenengo".

Zabalik dago honezkero Antoñanako turismo bulegoa

M.B.

ANTOÑANA

Denboraldi berria zabaldu du egunotan Vasco Navarro Bide Berdearen eta eskualdeko turismo bulegoak; abendura arte luzatuko da kanpaina.

Aste Santuko egutegiari erreparatuz gero, hilaren 8tik 12ra eta 17tik 23ra bitartean, goizez izango ditu ateak zabalik; hain justu ere, 10:30etik 15:00etara. Apirilaren 13tik 16ra, 10:30etik 14:30era eta 16:30etik 20:00etara bisitatu ahaliko da Antoñanako bulegoa.

Bisita gidatuak

Bestalde, inguruko turismoa sustatzeko alde-ra, askotariko bisita gidatuak prestatu ditu hilabeteotarako Mendialdeko Kuadrillak. Apirilaren 14an, esaterako, Soila mendia-ren itzulia egingo dute; eta 16an, igandea, Antoñana ezagutzeko aukera izango dute bisitariak.

Antolatzaileek gogorarazi dute doakoak direla bi irteerak, eta plaza kopurua mugatua denez, kome-ni dela aurretik ematea izena 945-40 54 24 tele-fono zenbakian edo info@montanaalavesa.com helbidean.

Horrez gain, nordic walking irteerak ere antolatu ditu kuadrillak. Apirilean bakarra egingo dute larunbata honetan. Kanpezuko gunetik hasi eta Bide Berdetik izango da ibilaldia. Toki berean eman behar da izena.

Aisialdiko begiraleen lan poltsa bat osatuko dute

Interesa dutenek hurrengo hilabetean aurkeztu beharko dute dokumentazioa udaletxean

A. AMENABAR

TREBIÑU

Trebiñuko Udalak aisialdiko begirale eta koordinatzaile lanak egiteko lan poltsa bat irekiko du. Interesa dutenek eskaera egin dezakete hurrengo hilabetean zehar; lanpostu bakoitzari dagokion dokumentazioa aurkeztu behar-

ko dute epe horretan. Udalerriko iragarki-taulan eta webgunean *-condadodetreviño.es-* aurki daiteke lan poltsaren inguruko informazio guztia.

Hala, NAN-aren kopia-rekin batera, lan-bizitzaren egiaztagiria eta beharrezkoa den euskara ezagutza maila ziurtatzen duen

kopia erakutsi beharko dute interesa dutenek – Euskara B titulua –, aisialdi jardueretako begirale edo koordinatzaile tituluarekin batera.

Nahitaezko baldintzak beteta, lan poltsan puntuak eskuratzeko kontuan izango dute irakasle tituluren bat edo titulu baliokideren

bat egiaztatzea, aisialdi jardueren begirale lanetan esperientzia izatea, Trebiñun antolatutako aisialdi jardueretan parte hartu izana eta lan honekin lotutako trebakuntza ikastaroak egiaztatzea.

Martxoaren 21eko udalbatzan hartu zuen Trebiñuk lan poltsa osatzearen erabakia, kultura eta euskara batzordeak sustatuta. Udaleko idazkariak eta udal alderdi bakoitzeko kide batek osatutako kalifikazio batzordeak erabakiko du lan poltsaren lehentasun ordena, euskara zerbitzuaren aurretiazko txostenarekin.

ZANGOZAN IZAN DA TREBIÑU

Trebiñu Arabara batzeko aldarrikapena Zangozara heldu zen joan den larunbatean. *Trebiñu Araba da* goiburua, pankarta eskuan agertu ziren Korrikak Zangozan (Nafarroa) egindako kilometro batean. Trebiñutik bertatik joan den asteazkenean igaro zen hogeigarren Korrika.



Hogeigarren Korrikak Zangozan egindako kilometro batean elkartu ziren trebiñarrak. | ARROSA IRRATI SAREA



PARRAL TABERNA

San frantzisko xabier kantoia 4, GASTEIZ

MENU BEGETARIANO ASTEAN ZEHAR
KULTUR EMANALDIK ASTEARTERO GOSARIAK
RAZIO BEGETARIANOAK ASTEBURUETAN



Arabako Errioxako Emakumeen Lehen Topaketetan aurkeztu zuten egitasmoa, eskualdeko emakumeen lana azalarazteko. | BERBERANA ALDIZKARIA

Liburu batean bildu dituzte eskualdeko emakumeen bizipenak eta testigantzak

Jatorri ezberdinetako hamar emakumezkoren inguruko testuak biltzen ditu liburuak

JUANMA GALLEGO

LAPUEBLA DE LABARCA

Martxoan Lapuebla de Labarcen egin ziren Arabako Errioxako Emakumeen Lehen Topaketetan aurkeztu zuten eskualdeko hainbat emakumeren bizitza jasotzen duen argitalpen berria. Bitartean Jolasean izeneko elkarteak abiatu zuen, aurrenekoz, ekimen hori, Oiongo emakumeen bizipenak jasotzen zituen liburuxka bat plazaratu zuenean. Argitalpenak izan zuen harrera ona ikusita, kuadrilla osora zabaltzea erabaki zuten. Monika Jalon gizarte langilea arduratu da lan hori aurrera eramateaz.

"Gure asmoa emakumeen bizitza azalaraztea

izan da. Era horretan, ikusarazi nahi izan dugu emakumeok esparru askotan lanean ari garela, eta ez gaudela soilik etxean umeak zaintzen", azaldu du Jalonek.

Egileak arlo eta esparru geografiko anitzeko emakumeak aukeratu zituen. "Arabako Errioxan, Guardia, Oion edo Bastidaz aparte, herri ugari daude, eta hori ere kontuan har-

"Gure asmoa emakumezkoen bizitza azalaraztea izan da"

MONIKA JALON
GIZARTE LANGILEA

tu dugu". Emakume guztiek proposamenari baietz esan ziotela nabarmendu du egileak. Hamar istorioak euskaraz zein gazteleraz idatzita daude.

Aukera zabala

Jatorri ezberdineko emakumezkoak agertzen dira argitalpenean. "Adibidez, Kubako emakume bat ageri da, bertoko gizon batekin ezkontzean gurera etorri zena eta orain Osakidetzan lan egiten duena, erizain gisa. Eta, Labrazan bizi den belgiar baten bizitza ere".

Esperientziaren bidean sakonduz, agure baten bizitza ere azaldu du liburua. "Bilarreko emakume horrek, gainera, laguntza

eman zuen, gaztaroan abesten ziren hainbat kantutan euskarazko hitzak berreskuratzeke". Haitin eta Argentinan kooperazio lanetan aritu izan den Samaniegoko neska baten bizipenak ere ageri dira liburuan.

Bastidako idazle bati buruzkoa da beste istorioetako bat. "Idazlea izan nahi zuen emakumea da, eta, jadanik, liburu batzuk argitaratu ditu. Orain, beste liburu bat idazten ari da, buru-belarri". Oionen tradizio handia duen *Auroraren* kantan aurrenekoz parte hartu zuten bi emakumeetako bat ere azaldu da liburuan. "Orduarte mutilek baino ez zuten kanta egiten".

Bost emakume alkate dituen eskualde batean, horietako baten esperientzia jasotzea ere oso interesgarria iruditu zitzaion egileari. "Norbit aukeratzearren, gazteengana jo nuen, Lapuebla de Labarcako alkatearengana, hain zuten. Berarekin jardutea plazer handia izan zen ere, tartean emakumeen arazoan inguruko motibazio handia duelako".



Oholtzan sei bertsolari izan ziren, Arabako bertso eskolen sarea irudikatu nahi zuen amaraunaren pankartaren aurrean. | ERLANTZ ANDA

Laugarrena, Perearentzat

Arabako Bertsolari Txapelketako finala irabazi du Oihane Pereak, laugarren aldiz. Asier Otamendirekin buruz burukoa kantatu ondoren, zain dute orain udazkenean hasiko den Euskal Herri mailako lehia. **ERREDAKZIOA** GASTEIZ

Arabako bertsolaritzak garaile berria du. Oihane Perea zalduondoarrak txapela jantzi zuen Arabako Bertsolari Txapelketako finalan, aurreko larunbatean. Aurrean izan zituen Manex Agirre, Iñaki Viñaspre, Asier Otamendi, Serapio Lopez eta Xabi Igoa, Arabako bertso eskolen sarea irudikatu nahi zuen amaraunaren pankarta atzean

zutela. Norgehiagoka adi-adi jarraitzen, berriz, 600 lagun baino gehiago elkartu ziren Gasteizko Principal antzokian. Nieves del Alamo aurkezle eta Aintzane Irazusta gai-emaiaren eskutik sei bertsolarien ariketa puntuagarriak bukatuta, Perea eta Otamendi pasatu ziren buruz-burukora. Azken bi ariketak bien artean jokatu eta Patxi Aizpuruak, Ainhoa Aizpu-

ruak, Aitor Jimenezek, Esti Zengoitibengoak eta Mikel Fernandez de Arroiabek osatutako epaimahaiak garaipena eman zion Pereari. Horrela, zalduondoarrak bere laugarren txapelketa eskuratu du, 2007, 2009 eta 2013an egin zuen moduan.

Euskal Herriko Txapelketara

Era berean, udazkenean hasiko den Euskal Herriko Txapelketa nagusian kantatzeko eskubidea irabazi dute Pereak eta Otamendik, hurrenez hurren, 591,50 eta 590,50 puntu lortu ostean. Beste lau finalistak, puntuaketen ordenean, Agirre (390,00), Igoa (384,50), Viñaspre (380,50) eta Lopez (372) izan ziren.

Aurten, Arabako bertsolaritzaren sustatzailea izan den Karla Santistebanek jantzio dio txapela finaleko irabazleari. 1982an Arabako lehenengo bertso-eskola sortu zuen Karlak, Araialdeakoa hain zuzen ere. Geroztik, antolatzailea, gai-jartzailea eta epailea izan da. Finaleko bertso, puntuazio, gai eta argazki guztiak bertsozale.eus webgunean daude ikusgai.



Joan den astelehenean izan zen Solasalean saioa, Oihaneder Euskararen Etxean. | SERGIO AZKARATE

JOKIN BILDARRATZ

SENATARIA Eusko Legebiltzarra ordezkatzen du Espainiako Senatuan Jokin Bildarratzek, eta bertan Eusko Alderdi Jeltzalearen talde parlamentarioaren bozeramaile lanetan dihardu. **IÑAKI IRIONDO/OLATZ ALONSO/JUANMA GALLEGU.** GASTEIZ

"Alderdi abertzaleen arteko sinergiak indartu behar ditugu"

Madrilgo politikaz gain, udal politika gertutik ezagutzen du Jokin Bildarratzek (Tolosa, 1963). Besteak beste, Tolosako alkate izan da zortzi urtez eta Eudeleko presidentea ere izan da. Haren ustez, hizki nagusietan idazten den politika udaletan egiten dena da, baina Madrilen ere euskal interesak defendatu behar direla dio.

Nolakoa da eguneroko lana Senatuan, jakinda, gainera, PPK erabateko gehiengo duela?

Lana da politikak behar duen elementurik garrantzitsuenetakoa. Gakoa da zure buruari eta ordez-

katzen dituzun ideiei leiala izatea, hain zuzen. PPK bertan erabateko

"Erabakitzeko eskubideari dagokionez, orain arte lortu ez den konplizitatea lortu behar dugu"

gehiengoa duela ikustean, errazena litzateke zeregin horretan indar berezirik ez jartzea, baina, gure kasuan, ez da horrela izan. Esaterako, berriki batzorde batean parte hartu dut, eta Estatu idazkariari

hiru galdera egin dizkiot. Frankismoaren inguruko mozio bat ere aurkeztu berri dut, zehazki, Eroritakoen Haranaren inguruan. Jakin bagenekien mozioak ez zuela aurrera egingo, baina, gutxienez, gure planteamenduak mahaiaren gainean jarri ditugu eta parekoaren kontraesanak agerian utzi ditugu.

Senatariak autonomikoak ala alderdi-koak izan daitezke. Zein alde dago bi mota hauen artean?

Denera, 266 senatari daude. Horietatik, 208 zuzenean aukeratzen dira hauteskundeetan eta 58, berriz, Erkidegoetako legebiltzarretan. Autonomia Erkidego bakoitzeko

gutxienez senatari bat dago, eta beste senatari bat ere milioi biztanle bakoitzeko. Euskadiren kasuan, hiru dagozkigu. Eguneroko lanean ez dago alderik, baina Madrilgo gortetean, hauteskundeak direnean, 58 kide horiek parentesi batean egon daitezke. Izan ere, mahai iraukorretan ez badaude, senatari iza-teari uzten diote.

Tolosako alkatea izan zinen, eta, duela gutxi, erabakitze eskubidearen inguruko galdeketa egin zen bertan. Nola bizi izan duzu prozesu hau?

Zortzi urtez zinegotzia izan naiz eta, beste zortzi urtez, alkate. Legebiltzarrean eta Senatuan ibili naiz, baina gehien bete izan nauena alkatetza izan da. Horrek ere higadura dakar, noski, eta jardun horretan zortzi urte baino gehiago egotea ez da erraza. Eskakizun maila oso altua da baina, nire ustez, alkatetzetan egiten den politika hizki nagusiez idazteko modukoa da. Gure Esku Dagok bultzatutako ekimenari dagokionez, oso gaintetik jarraitu dut, orain normalean kanpoan denbora asko egoten naizelako. Herrira bueltatzen naizenean, lasaitasuna bilatzen dut. Kolonbian eta Azerbaijanen izan berri naiz, esaterako. Prozesua gertutik jarraitu ez badut ere, hainbeste milaka pertsona kalera eramatea eta bozkatzera joatea ariketa garrantzitsua izan dela uste dut. Horrekin jarraitu beharra dago eta jendea sentsibilizatzen asmatu behar dugu. Zentzu horretan, beharrezkoa da alderdi abertzaleen artean konplizitateak eta sinergiak areagotzea.

Kolonbian izan zarela aipatu duzu. Zer egiten du bertan senatari jeltzale batek? Senatari bezala Europako Kontseiluko kidea naiz. 47 estatuz osatuta dago eta, batez ere, giza eskubideen aldeko lana egiten du. Espainiako Estatuak hamabi kide ditu eta ni horietako bat naiz. Kolonbiakoari dagokionez, Kontseiluko hainbat kidek gure kabuz erabaki genuen herrialde horretara joatea, bidaia ez ofizial batean. Bake prozesua ezagutu nahi izan dugu, eta gobernuarekin zein oposizioarekin bildu gara. Ivan Cepedarekin, Alvaro Uriberekin, FARCeokekin... bertako egoera ikusteko parada izan dugu. Iazko urriaren 2an egin zen plebisizituan, denon ezusteko, ezezkoak oso alde txikiagatik irabazi zuen. Halere, nahiko baikorra naiz.

"Bizikidetzaren garatzea zaila da, ia ezinezkoa, presoaren egoera konpontzen ez den bitartean"

EAJk erabakitze eskubidearen sinisten du. Hala bada, zergatik dago hain epel Gure Esku Dago-ren dinamikarekin?

EAJk gai hori atera zuen, Ibarretxeren garaian. Ez dut uste kontua denik epel egotea ala ez. Orain arte lortu ez den konplizitate bat bilatu behar da EAJ eta Ezker Abertzalearen artean. Gure Esku Dago-ren hasierako oinarriak bai bizi nituen, baina gure alderdiko eta Ezker Abertzaleko oinarrietako jendearen arteko harremanak ez ziren batere errazak izan. Bestalde, gizarteak nola baitekote protagonismoa irabazi behar du, Katalunian ikusi dugunaren parekoa. Orain, fokua Legebiltzarrean lantzen ari den ponentzian jarri behar da.

Zer etorkizun ikusten diezu Gure Esku Dagoren aldarrikapenei? Gaur egun Espainian dagoen gobernuaren jarrerarekin zer bait lortu daitekeela uste al duzu?

Gure Esku Dagok publikoki adierazi duen bezala, beraiek muga bat

dute, baina oinordetza bat utziko dute. Sozializazioa egitea garrantzitsua izango da, baina baita egoeraren inguruko diagnostiko bat ere. Hausnarketa hori gizarteak zein alderdiek egin beharko dute. Legebiltzarreko ponentziarekin ere antzera jokatu beharko da. Madrilerik dagokionez, orain dagoen egoera ez da erraza, ez soilik PPrekin, baita PSOerek ere. Podemosek ere sentsibilitate ezberdinak azaldu ditu gaiaren inguruan.

Nola ikusten da Kataluniako egoera Senatuan? Alderdien diskurtso ofiziale-tan baino, zuen artean hitz egiten duzue-nean...

Egoera oso bortitza da. Senatuan Katalunia tentsio handiko gaia da, batik bat, galderak eta mozioak aurkezten direnean. PDCAT Kataluniako Alderdi Demokratiko eta Esquerra Republicanako jendea oso minduta dago, eta min hori azalazten dute.

Kafetegian zaudetenean ere tentsio hori nabaritzen al da?

Bai, momentu honetan batez ere PDCATEko jendearekin. PPko zein beste alderdi bateko jendearekin kafe bat lasai hartzen egon zaitezke, baina PDCAT eta PPren artean une honetan tentsio handia dago. Kata-



Jokin Bildarratz, saioan parte hartu baino lehen, Gasteizen. | SERGIO AZKARATE

lanak asko sufritzen ari dira, gaitasungabetuak izateagatik edo taldea osatzeko aukera ez edukitzeagatik. Haien ikuspegia da behin eta berriz leku guztietatik kanporatzen dituztela, eta horrekin oso minduta daude.

Nola ikusten duzu Eudel, orain EH bildu bertan sartu dela?

Askoz hobeto. Hankamotz geundelako, eta horretaz kontziente ginen. Udal askoren alkatetzan Ezker Abertzalea dago, udal garrantzitsuetan gainera. Horregatik, Ezker Abertzalea barruan edukitzea ezinbestekoa zen. Horrela, Eudelek hobeto ordezkaturiko ditu sentsibilitate guztiak eta baita udalek dituzten beharrak ere. Erakundearen behar nagusienetakoa hirugarren hanka instituzional

bihurtzea izango litzateke. Jaurlaritza, aldundiak eta udalak ditugu, eta udalen ordezkari nagusia izan behar du Eudelek. Jaurlaritzarekin zein aldundiekin negoziatu eta udalak ordezkatu ahal izateko, batez ere. Izan ere, lehen esan dudan bezala, hizki nagusiez egiten den politika gure zinegotziengan eta alkateengan dago. Gehientsuenak, gainera, boluntarioak dira.

Testuinguru horretan, non kokatzen da Udalbiltza?

Udalbiltzak paper garrantzitsua joka dezake, eta horregatik inor ez ikararaztea lortu beharko genuke. Erakunde berri bat sortu da, eta garrantzitsua da alde guztiak jasotzen dituen erakunde izatea. Zentzu horretan, Hego eta Ipar Euskal Herria biltzen

dituen erakunde bakarrenetakoa Ikastolen Elkarte da. Udal mailan antzeko papera jokatzeko duen erakunde bat izatea garrantzitsua litzateke. Zalantzan jar liteke ea bertan soilik abertzaleek egon behar duten ala sentsibilitate guztiak biltzen dituen erakunde izan beharko litzatekeen.

Madrilen zaudetenok Trebiñu Araban sartzeko saiakera gehiago aurreikusten al dituzue?

Bai. Orain dela gutxi, gainera, beste ekimen bat egin dute eta hori izango da jorratu beharreko bideetako bat. Espainiako Estatuak arazo handi bat du: oso atzerakoia da lurraldetasunari dagokionean. Borondatea hain garbia izanda eta hain arazo txikia suposatuz, ezin da ulertu nola gai horri ez zaion irtenbidea eman oraindik.

Aste honetan izango da ETaren armagabetzea. Nola ikusten da hau Madriletik?

Une honetan, 2011ko urriaren 20an hasi zen fase bat bukatzen ari da. Baina konpondu beharreko gai asko geratzen dira. Tartean, bizikidetzeta eta normalizazioa. Eta hor udalek paper garrantzitsua joka dezakete. Presoen egoera ere kontuan hartu behar da; duela gutxi beste istripu larri bat izan da. Oso zaila da, ia ezinezkoa da, bizikidetzeta garatzea gai hori konpondu gabe dagoen bitartean. Biktimen gaia dago ere. Gure errealitatea hemengoa izanik, badi-rudi askotan biktimak batera daudela, baina gai honek beste tentsio bat sustatzen du. Hemen ñabardura asko ulertzeko gai gara, baina hementik kanpo ez da hain erraza ñabardura horiek ulertzea.

Baina bizikidetzeta, batez ere herri txikietan, uste genuen baino lehenago heldu da, ezta?

Ez zait hala iruditzen. Ez dago gatazkarik, baina oraindik pertsonen eta familien arteko min asko daude oraindik... nik neuk nireak badituzte, eta nire semeek izango dituzte, baina min horiek denborak gaindituko ditu. Halere, era batean edo bestean sufritu dutenek hor izango dute mina. Ni, adibidez, Tolosako elkarte kultural gastronomiko batean ezin naiz sartu, EAJkoa izateagatik. Ez da ezer gertatzen, baina egia da oraindik orain badagoela hor zerbait gainditzeko. Horrek denbora eskatzen du, baina bide onean goazela iruditzen zait.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

#erronkarakoprest

Ana Alberdi
Mendako
Ikus-eritzunezko
Komunikazioa, 4. maila

GRADUKO ATE IREKIAK

<p>GOI ESKOLA POLITEKNIKOA</p> <p>ARRASATE - APIRILAK 27 OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia</p> <p>ORONA IDEO - APIRILAK 29 LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia</p> <p>GOIERRI - MAIATZAK 4 OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia</p>	<p>HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA</p> <p>ESKORIATZA - MAIATZAK 6 LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia</p> <p>ARETXABALETA - MAIATZAK 6 LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia</p>
<p>ENPRESAGINTZA FAKULTATEA</p> <p>BILBAO - APIRILAK 29 LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia</p> <p>BIDASOA - MAIATZAK 18 OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia</p> <p>OÑATI - MAIATZAK 25 OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia</p>	<p>GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center</p> <p>DONOSTIA - MAIATZAK 13 LARUNBATA, 10:30 / Auditorium</p>

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

www.mondragon.edu/prest 902 110 436

EMAIZE

SEXOLOGIA ZENTROA www.emaize.com

Bidelagun aparta, arrakasta!

Chrysallis EH elkarteak transexualitate egoeran dauden haurren errealtatea ezagutarazteko kanpaina abian jarri zuenean, nahiz eta batzuen gustukoa izango ez zela imajinatu, ez zuen esperoko ondoren gertatutako guztia.

Beraiek pertsona bakoitzak emakume ala gizon sentitzeko modu ezberdina duela aldarrikatzen duten bitartean, badira gizon eta emakume izateko modu bakarra inposatu nahi dutenak (*¿Sabes lo que quieren enseñarle a tu hijo en el colegio? Las leyes de adoctrinamiento sexual* liburuxka irakurtzea merezi du) eta azken hilabeteetan hiriz-hiri ikusi ditugu Espainian zehar eta baita gurean ere. Gasteizen ongietorria egiteko prest geunden, euripean batzuetan, haizeak koloretako banderolak mugituz bestetan, oihu eginez orain eta talde txikitik transfoboen hauen lotsagabekeria komentatuz ondoren.

Transfoboek diotenaren kontra, ez zen transexual eta homosexualen kontzentrazio urri bat izan, ezta gutxiago ere. Adin, sexu, orientazio, sentiberatasun, bizimodu eta pentsakera ezberdinetako pertsonak bildu ginen han, guztiok aldarrikapen berdina partekatuz: emakume eta gizon izateko modu anitz dago eta aniztasun hori errespetu osoz onartua izatea nahi dugu.

Ordu eta erdi luze igaro zen autobus laranjaren berririk gabe. Ez ziren agertu. Ipar Ameriketara abiatzea erabaki omen zuten, Trumpen bozkatzaileen artean Araban baino arrakasta handiago lortzeko itxaropenaz, antza. Baten batek pentsatuko du denbora galdu gurea egindako ekintza bakoitzarekin lortutakoa ez da gutxi.



HazteOir elkarteak Gasteizen egin behar zuen agerpenaren kontrako elkarretaratzea. | ALEA

Chrysallisek metxa piztu zuen, gaia kalera atera zuen eta jendartea helburu horren oihartzun bihurtu da. Transfoboaren eraso bakoitzaren aurrean, erantzuna eman dugu. Herritarrok, erakundeek, komunikabideek... apustu argia egin dugu

"Transexualitate egoeran daudenekiko interesa, elkar ulertzea eta errespetu maila handitu da"

pertsona transexualen eskubideen bermea lortzeko. Errealitate ezkutua kaleratzeko apustua egin zuen Chrysallisek eta egundoko bidelaguna lortu du oraingoan. Etsaiak transexualitate, maskulinitate eta femininitate eredu askeak, eta sexualitatea bizitzeko estuasuna zabaldu

nahi izan duenean, gizarteak kontrakoa esan dio argi. Kalean, sutoandoan, irrastian, telebistan, ikastetxeetan... inoiz baino gehiago hitz egin dugu sexu identitateaz, gizon eta emakume izateko hamaika modu ezberdinetaz, gure izate sexuduna azaltzeko mila eraz...

Chrysallisek abiatutako kanpainari esker, transexualitatearen onarpenaren akordio isila sinatu dugu jendarrean. Transexualitate egoeran daudenekiko interesa, elkar ulertzea eta errespetu maila handitu da eta horrekin batera haur, gazte eta heldu askoren duintasun eta bizi kalitatea hobetuko da. Laranja autobus, berrehun autokarabana, hegazkin, txirrindula eta itsasontzi. Guk ostadarraren kolorez margotuko ditugu gure kale, etxe, ikastetxe, tabernak eta plazak. Askatasunaren kolorez.

emaize
CENTRO SEXOLÓGICO • SEXOLOGIA ZENTROA
Bueno Monreal 1, behea • 01001 Vitoria-Gasteiz
945 26 58 96 • emaize@emaize.com • www.emaize.com

Idatzi zure mezua
www.alea.eus atarian
eta aldizkarian ere
argitaratuko dugu.

GASTEIZ

Irati Fernandez de Lezeta

"Hasierako bizipoz eta gogo berak dituzue lagun bai korrikak, bai zuk Irati. Amaigabeko martxa aparta horretan jarrai dezazun opa dizugu familia eta lagunok. Besarkada handi bat, Zorionak Irati eta Gora Korrika!!!!".



GASTEIZ

Gaizka Amondarain

"Hamaika irri, parranda, dantza eta eztabaida sakon. Segi ametsak arrantzatzen, Arratiako Poseidon! Gasteizko zure laqunak".



GASTEIZ

Lur eta Nahi Gonzalez de Heredia

"Zorionak etxeko txirriindulari, dantzari eta mendizale trebee! 6 urte, txapeldunak! Jarraitu gauzekin disfrutatzen, eta zuen bizipozarekin! Muxu erraldoia etxekoan partetik. Asko asko maite zaituztegu!!!".

GASTEIZ

Asier Diaz de Durana

"Zama handiko tristurak altxatzeko igogailuak diseinatzen onena zaitugu. Zorionak tabernako ingeniari trebeenari!!!".

Harpidedunentzat

 **ZOZKETAK**

Azken irabazlea:

Errigora produktu sorta: Jaime Ortiz de Urbina Duran (Gasteiz).



Eman izena webgunean:
www.alea.eus/zozketak

HalaBedi tabernan afaria

Gasteizko alde zaharreko Hala Bedi tabernan bi lagunentzat afaria zozkatuko du ALEAK, ostiral edo larunbat batean afaltzeko. Zozketan parte-hartzeko, eman izena **apirilaren 24a** baino lehen. Irabazlearen izena **apirilaren 27ko** aldizkarian jakinaraziko dugu.



HITZ GEZIDUNA

	Pasaka jokalaria	▼	Zerga zaharra	▼	Jatekoa	▼
	Hots ez atsegina		Detekta-gailu		Handi samarra	
	▶		▼		▼	
	Lepoak, idunak	▶				
	Begietako zikin					
Sudurretako jarioak	▼	Udare	▶	▼		
Lusakakoa		Burdina urtua				
▶		▼				
*	▶					Euskal sindikatua
Oiloaren ar						
▶				Euskadi, labur-labur	▶	▼
				Galderetan		
Gizon izena	▶			▼		Kontso-nantea
Bizkaiko ibaia						Boroa
▶						▼
			Emea gurasoekiko	▶		

* Amurrioko herri inauterietako pertsonaia

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA

A	B	V	L	V	A	K	O
L	N	I	A	R	I	V	O
E	A	E	R	L	A	I	O
R	O	K	A	R	A	R	O
V	A	K	A	R	A	R	L
I	M	A	D	A	R	M	
K	S	A	M	A	K		
A	R	A	T	Z			
J	H	P					

SUDOKUA

8	6	1	2	7	9	4	5	3
2	5	7	3	6	4	9	1	8
4	9	3	8	1	5	6	7	2
9	1	8	4	2	6	5	3	7
7	3	4	1	5	8	2	6	9
6	2	5	9	3	7	1	8	4
1	4	2	6	8	3	7	9	5
5	8	6	7	9	2	3	4	1
3	7	9	5	4	1	8	2	6

GOITIBEHERA

M	U	G	A	R	I	
M	U	R	G	I	A	
U	G	A	R	I		
G	A	R	I			
A	R	I				
B	I	R	A			
U	R	B	I	A		
U	R	B	I	N	A	
U	R	A	B	A	I	N

SUDOKUA

	7		5				2	
	4	2			3			5
	8	6						
					7		8	4
	3			5			6	
9	1		4					
						6	7	
2			3			9	1	
	6				9		5	

GOITIBEHERA

1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9								

Nola jokatu? 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.
 1. Asparreneko kontzejua. 2. Legutioko kontzejua.
 3. Aizkorri aldeko zelaigunea. 4. Jira, itzulia.
 5. Jardun. 6. Labore mota. 7. Asko.
 8. Zuiako kontzejua 9. Zedarri.



EITB

'Urko herrikoi' kontzertua

Gasteiz. Asteartea 11, 20:00etan, Principal antzokian.

APIRILAK

7

APIRILAK

13

**EUSKARAREN
AGENDA**

MUSIKA

Anari eta Jupiter Jon

Gasteiz. Ostirala 7, 21:30ean, Jimmy Jazz aretoan.

Ikaära, Nakkiga, Sinigami eta Helde

Amurrio. Ostirala 7, 22:30ean, Burubio aretoan.

Nafarroa Kantu taldea

Amurrio. Larunbata 8, 20:00etan, erdigunean.

ANTZERKIA

'Txarlestrup'

Laudio. Ostirala 7, 19:00etan, Aldai plazan. Zirika Zirkus taldearen eskutik.

BERTSOLARITZA

Plaza librea

Laudio. Ostirala 7, 22:00etan,

'Euskadi' dokumentala

Gasteiz. Asteartea 11, 19:00etan, Oihanederren. 1936an grabatu zuten *Euskadi* dokumentala.



EUSKADI

gaztetxean. Paula Amilburu, Izar Mendiguren, Iker Pastor eta Ander Solozabal bertsolariekin.

HAURRAK

'Amalurra eta birziklatzeko makina' ipuina

Gasteiz. Larunbata 8, 12:00etan, Judimendi gizarte etxean.

Umeentzako tailerrak

Agurain. Larunbata 8, 17:30ean, San Joan plazan.

Eskulan tailerra

Laudio. Larunbata 8, 17:30ean, ludotekan. Arima taldearen eskutik.

'Printzesa eta futbolaria' antzerkia

Ondategi. Larunbata 8, 19:00etan, kultur etxean.

'Imagine' ikuskizuna

Gasteiz. Igandea 9, 12:00etan, Kunarte aretoan. Asier Kidam magoarekin. 3-5 urte bitartean.

IKUS-ENTZUN

Zinegoak emanaldia

Artziniega. Ostirala 7, 18:00etan, Etnografia museoa. Gaylesbotrans emanaldia.

'Albert' eta 'Igelak' pelikulak

Dulantzi. Igandea 9, 17:00etan, auditoriumean.



RAUL BOGAJO

Ostegun Santuko prozesioa

Guardia. Osteguna 13, 21:00etan. Arabako beste hainbat txokotan egin

moduan, Guardian herritar ugari biltzen dituzte Ostegun eta Ostiral Santuko elizkizunek. Horien artean,

nabarmenezkoa da Ilte Ateratzea izenez ezagutzen den jaitsiera, ostiral arratsaldean egingo dutena.

BESTELAKOAK

Trikitixa jaialdia

Aramaio. Ostirala 7, 18:30ean, kultur etxean. Trikitilariekin batera, musikari gonbidatuak izango dira saioan.

Ilunabarrean dantzan

Gasteiz. Ostirala 7, 21:00etan, Oihanederren. Balfolk dantzaldia, Patxi Monterok gidatuta.

GEUrekin mendira

Gasteiz. Igandea 9, 08:30ean, Mendizorrotzako aparkalekutik abiatuta. Cantoblanco mendira igoko dira. Aurretik izena emena behar da.

BESTE HITZORDU BATZUK

MUSIKA

La Unión

Gasteiz. Ostirala 7, 22:00etan, Kubik aretoan.

Andere abesbatza

Laudio. Larunbata 8, 20:00etan, San Pedro elizan.

The Brew eta Phantom Power

Gasteiz. Larunbata 8, 22:00etan, Hell Dorado aretoan.

The Dealers

Gasteiz. Asteartea 11, 20:30ean, Parral tabernan.

ANTZERKIA

'El falso paraguayo'

Gasteiz. Ostirala 7, 19:30ean, Baratza aretoan. Monstrenko taldearekin.

'Cervantina'

Gasteiz. Ostirala 7, 20:30ean, Principal antzokian. Ron La La taldearekin.

BESTELAKOAK

'Nacido en Siria' dokumentala

Laudio. Ostirala 7, 17:30ean, Lanbide Heziketa eskolan.

Loreen eta baratzaren azoka

Eltziego. Larunbata 8, goizean zehar. Baratzeko produktuak, eskulanak, kontserbak eta beste hainbat produktu izango dira.

'Nacido calabacín' haurrentzako filma

Amurrio. Igandea 9, 17:30ean, Amurrio antzokian. Hainbat sari jaso ditu animaziozko pelikula honek nazioarteko jaialdian.

Jimmy Jazz Gasteiz AGENDA

apirilak 7 ostirala
ANARI + JUPITER JON

apirilak 8 larunbata
IN MEMORY OF COZY POWELL
ALSO DIO AND GARY MOORE

apirilak 15 larunbata
THE EXPLOITED + THE CASUALTIES
+ CODE RED + CLOWNS

apirilak 18 asteartea
ILL NIÑO
+ EKTOMORF + INCITE + XTORTYA

apirilak 21 ostirala
RAPUSKLEI
AFTERPARTY: DJ LORD & THUNDER CLAP SOUND

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM



errenta

ARABA ÁLAVA

16

Pertsona fisikoen
errentaren eta ondarearen
gaineko zergak



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus